



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

2017/02/23

Bizkaiko Alkarrizketa Zibileko Mahaia martiaren 2an alkartuko da

Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintzako foru diputatuak Batzar Nagusien aurrean gaur jakinarazo dauenez, Bizkaiko Alkarrizketa Zibileko Mahaia datorren eguenean, martiaren 2an, alkartuko da, Unai Rementeria Bizkaiko Ahalduen Nagusia buru dala. Foru Aldundiko Gizarte Ekintzak Lurralde Historikoan presentzia daukien Hirugarren Sektoreko erakundeakaz eta sareakaz behar egiteko sortu zan espazio komun hori legegaldi honetan alkartzen dan lehenengo aldia izango da.

2016ko urriaren 19ko osoko bilkuran Bizkaiko Batzarrek aho batez onetsi eben Aldundiari “ahalik eta lasterren” Alkarrizketa Zibileko Mahaia deitzeko eskatzea, Gizarte Ekintzako batzordean gaur Aldundiari egindako ahozko erantzun-eskean Batzarretako EH Bildu taldeak gaur gogoratu dauen moduan. Mahaia datorren astean alkartuko da, eta koalizino horrek, oposizino lehenengo taldearen interesak “eragindako” deialdia dala esan dau, diputatuak hori ezeztu dauen arren. “Alkarrizketa Zibila ohikotasunez egiten da”, esan dau Sánchez Roblesek, defendiduteko.

EH Bilduk egindako erantzun-eskeari erantzunez, baita be, Aldundiko arduradunak, pertsona nagusientzako Egoitzen Foru Sarean dagozan Egoitzen Batzorde Iraunkorrek 2016an egindako bilera biren barri emon dau Batzarren aurrean. Egoitzetako arretaren arloan gero erabagiak hartu ahal izateko kontsultarako organua birritan alkartu zan igaz, bagilaren 17an eta zemendiaren 28an. Diputatuaren eretziz, horrek argi erakusten dau organo horrek behar egiteko “ohiko erritmoa” lortu dauela, arautegiak agintzen dauen moduan. EH Bilduk esan dauenez, 2015ean batzordea “behin” baino ez zan deitu.

EZEZKOA EGOITZETAKO PRESTAZINOAREN IGOEREARI

Beste alde batetik, Batzar Nagusietako EAJ-PNV, PSE eta EH Bildu taldeek ez dabe onartu egoitza publikoan plaza lortzeko zain dagozan eta besteen laguntzea behar daben pertsona nagusiakaz erlazionautako prestazino ekonomikoaren igoerea. Bizkaiko Talde Popularrak Talde Mistoko ordezkariaren aldeko botoa baino ez dau lortu, Bizkaiko Batzarrek Agindua emon deioen Aldundiari, arauz besteko proposamen baten bitartez, une honetan “401 eta 833 euro artekoa” dan laguntzea igotzeko –zenbat igon kuantifikau barik–, eskatzailearen menpekotasun egoerea eta egoera pertsonala kontuan izanda.

Eduardo Andrés batzarkide popularrak salatu dauenez, “gitxi” dira egoitza publiko batean plaza lortzeko itzaroten daben bitartean egoitza pribadua ordaindu daikien pertsona nagusiak edo senideak. Kontuan izan behar da zentro pribaduetako prezioak “hilean 2.500 eta 3.000 euro artean” mobitzen dirala. Batzarkide popularrak gaur



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

egungo prestazinoa aldatzea eskatu dau, errealidadera gehiago hurbildu eta “eraginkorra” izan daiten.

Talde Mistoak eta Podemos Bizkaia taldeek ekimena “positiboa” dala esan dabe, baina igoera kuantifikatu ez izana kritikatu dabe. Talde morea abstenidu egin da, eta “zehaztasun handiagoa” eskatu dau. Andrés, ekimenaren kontra agertzea “saihesteko” justifikatu dau igoera proposamena zehaztu ez izana, hain zuzen be, baina, halanda be, gainerako taldeak (Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta EH Bildu) kontra agertu dira.

Juan Otermin sozialistak adierazo dauenez, besteen laguntzea behar daben pertsona nagusiakaz erlazionautako prestazino ekonomikoa, familiako ingurunean nagusiak zaintzeko emoten diran beste laguntza batzuen “osagarria” da. Bere eretxiz, kontraesankorra da PP taldeak Rajoyren Gobernuak Estaduko gainerako lekuetan ukatzen dauena Bizkaian propondutea, eta Kupoaren bitartez Menpekotasunaren Legea apliketeagaitik Estaduko Gobernuak ordaindu behar dauen %15eko diruaren transferentzia eskatzeko iradoki deutso Batzarretako talde popularrari. “Espainiako gainerako lekuetan egiten ez dabena saldu gura deuskue hemen”.

EH Bildu laguntzea handitzearen kontra agertu da, eta, horretarako, Menpekotasunaren Legean bertan oinarritu da, bertan, “prestazino ekonomikoen gaintik lehentasuna zerbitzuei emoteaz egiten dalako berba”. Josu Unanue bozeroalearen eretxiz, hori da “lanpostuak sortzeko” estrategia hoberena.

Zuriñe Argatxa jeltzaleak, bere aldetik, Bizkaian gaur egun aurrera eroaten dan babes politikea defendidu dau, “bakarra dan kasu bakoitxera” egokitzen dalako. Holan, adierazo dauenez, laguntza ekonomikoa “osagarria” da, eta, edozelan be, Aldundiak “epe laburrean” plaza bat bermatzen deutse besteen laguntzea behar daben pertsona nagusiei, kasua “preminazkoa” bada edo “menpekotasun handia” badago. Gainera, holangoetan, “lehentasuna” daukie baliabiderik bako pertsonak. Argatxaren “susmoa” PPK, bere proposamenagaz, “babes sistemea laguntza sistema bilakatzea dala” da, eta kritikatu egin dau talde hori, Gobernuan dagonean “baloiak kanpora botaten ditualako”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

23/02/2017

La Mesa de Diálogo Civil de Bizkaia se reunirá el 2 de marzo

La diputada foral de Acción Social, Isabel Sánchez Robles, ha informado hoy a las Juntas Generales que la Mesa de Diálogo Civil de Bizkaia se reunirá el próximo jueves, 2 de marzo, bajo la presidencia del diputado general de Bizkaia, Unai Rementeria. Será la primera vez en esta legislatura que se reúne este espacio común de trabajo que comparte el Departamento de Acción Social de la Diputación con las organizaciones y redes del Tercer Sector con presencia en el Territorio Histórico.

La Cámara vizcaína aprobó por unanimidad en el Pleno del 19 de octubre de 2016 instar a la Diputación a la convocatoria "a la mayor brevedad" de la Mesa de Diálogo Civil, cuestión que ha recordado el grupo juntero EH Bildu mediante una pregunta oral realizada hoy a la Diputación en la comisión de Acción Social. La Mesa se reunirá la semana próxima lo que la coalición abertzale ha interpretado como una convocatoria "provocada" por el interés del primer grupo de la oposición, cuestión que ha negado la diputada. "El Diálogo Civil se produce de forma ordinaria", ha dicho Sánchez Robles para defenderse.

A pregunta también de EH Bildu, la responsable foral ha informado a la Cámara vizcaína de las dos reuniones que mantuvo en 2016 la Comisión Permanente de Centros integrados en la Red Foral de Residencias para personas mayores. El órgano consultivo para la posterior toma de decisiones en el ámbito de la atención residencial, se reunió en dos ocasiones el año pasado, el 17 de junio y el 28 de noviembre, lo que indica que este órgano ha conseguido un "ritmo ordinario" de trabajo, según la diputada, como así establece la normativa. EH Bildu ha lamentado que en 2015 la comisión sólo se convocó "en una ocasión".

RECHAZO A UN AUMENTO EN LA PRESTACIÓN RESIDENCIAL

Por otro lado, los grupos junteros de PNV, PSE y EH Bildu han rechazado una subida de la prestación económica vinculada a las personas mayores dependientes que esperan plaza en una residencia pública. El grupo Popular Vizcaíno sólo ha contado con el apoyo del representante del grupo Mixto para que la Cámara vizcaína instara a la Diputación, a través de una proposición no de norma, a elevar -sin cuantificar- la ayuda actual que oscila "entre los 401 y los 833 euros", dependiendo del grado de dependencia y de la situación personal del solicitante.

El apoderado popular Eduardo Andrés ha denunciado que "pocos" mayores o familiares pueden pagar una residencia privada mientras esperan plaza en una pública con las actuales cuantías, cuando los precios en centros privados se mueven "entre los 2.500 y 3.000 euros mensuales". El juntero popular ha pedido que la prestación actual se modifique para que esta pueda acercarse a la realidad y ser "efectiva".

El grupo Mixto y Podemos Bizkaia han calificado la iniciativa de "positiva", pero han criticado que no se haya cuantificado el incremento. El grupo morado, que se ha abstenido, ha pedido "mayor concreción". Andrés ha justificado la falta de una propuesta de incremento para



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

"evitar" precisamente el rechazo que su iniciativa ha provocado después en el resto de grupos (Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y EH Bildu).

El socialista Juan Otermin ha señalado que la prestación económica vinculada a las personas dependientes es “complementaria” a otras ayudas en el cuidado de los mayores en el entorno familiar. Para él, es contradictorio que el PP proponga en Bizkaia lo que niega el Gobierno de Rajoy en el resto del Estado y ha instado al grupo juntero popular a pedir la transferencia del dinero correspondiente al 15% que le corresponde pagar al Ejecutivo central por la aplicación de la Ley de Dependencia vía Cupo. “Venden aquí lo que en el resto de España no hacen”.

EH Bildu se ha negado a ampliar la ayuda esgrimiendo para ello la propia Ley de Dependencia en la que “se habla de priorizar los servicios sobre las prestaciones económicas”. Su portavoz, Josu Unanue, cree que esta es la mejor estrategia “para generar puestos de trabajo”.

Por su parte, la jeltzale Zuriñe Argatxa ha defendido la actual política de protección vizcaína porque se amolda “a cada caso, que es único”. En este sentido, ha señalado que la ayuda económica es “complementaria” y que, en cualquier caso, la Diputación garantiza una plaza “a corto plazo” a los mayores dependientes si el caso es “urgente” o existe una “gran dependencia”, en donde, además, tienen “prioridad” las personas sin recursos. Argatxa “sospecha” que el PP pretende con su propuesta “convertir el sistema de protección en un sistema de ayudas” y ha criticado a esta formación por “echar balones fuera” cuando está en el Gobierno.